

ELISABET HIRUTASUNARENA: 1. MENDEURRENEAN

ELISABET HIRUTASUNARENA DOATSUA (1880-1906)


BIZITZA = MEZUA

(HERIOTZAREN LEHEN MENDEURRENA)

Badira, laburrak izan arren, BIZITZA oso beteak; egunero bizitzako mezu sakona eskaintzen dutenak. Horrelakoa da, eginginean ere, Joan Paulo II Aita Santuak 1984ko azaroaren 25ean dohatsu aitortutako Elisabet Hirutasunarena. Hain zuzen ere, dohatsu izendatzea dela eta aurkeztu zuen frantses gazte honen bizitza Lino Akesolok Karmel aldizkari honetan (1985,58-70). Eta orain gogora dakargu berriro beraren heriotzaren lehen mendeurrena dela eta.

Baina, nor dugu Elisabet? Lehen eta behin gogora dezagun Misioen zaindaria eta Elizaren doktorea den beste santa handi baten, Liseux-eko Teresa karmeldar gaztearen garaikidea dugula.

Ez da erraza gertatzen Elisabet-en giza eta espirituzko aberastasuna laburkiro eskaintzea. Bizitza laburra izan bazuen ere, barnean bizi eta idazkien bidez aditzera eman zigun espiritualtasun sakonak gainditu egiten ditu aldizkari honetako orriak. Karmel aldizkari-ko ale honetan beraren idazkien atal batzuk aurkezten ditugu, izan zuen izaera atsegina ezagutzera emateko.



HAURTZAROA ETA GAZTAROA

Elisabet 1880ko uztailaren 18an jaio zen Avor ingurune militarrean, Frantziako Bourges elizbarrutian. Beraren gurasoak Francisco Catez jauna eta Maria Rolland izan ziren. Aita militarra izan eta bi aldiz etxebizitza aldatu ondoren, 1883an eraman zuen familia Dijon-era bizitzera. 1883an jaio zen Margarita ahizpa. Catez kapitaina 1885ean jubilatu zen eta bi urte geroago hil. Hamar urte geroago gogoratuko du Elisabet-ek olerki batean:



zuen. Eta bere burua eskaini zion Jainkoari birjintasun botoa eginez. 1894ko uda zen.

Bere amak erlijio-bizitzarako joera hori alabaren bihotzetik aldenendu nahi izan zuen. Hala eta guztiz ere, dagoeneko finkatuz zihoan gaztea, giza osotasun orekatsua lortuz. Hamazortzi urte egin orduko, gaindituak zituen bere tenperamentuak sortzen zizkion arazo pertsonalak eta eskuratuta hainbateko oreka sendoa. Intelektualki intuizioz beteriko neska gogoetatsua zen. Amak onartu egin zuen, azkenik, karmeldar erlijiosoa izateko hartutako erabakia, baina 21 urte bete ondoren egiteko baldintzarekin.

Ezagutzen dugu 19 urte zituela idatzi zuen egunerokoa: bertan, besteak beste, bere barne bizitzaren bilakaera, otoitzezko eta bakardadezko bizitza, arimak salbatzeko zituen gogo-kekak, erlijio-bizitzari zegozkion proben gainditzea, Eukaristiari zion maitasuna eta beste hainbat berri jasotzen ditu. Urte horietan irakurri zuen bi urte lehenago hil zen Teresatxo santaren *“Arima baten Historia”* liburu ospetsua.

Kontenplaziorako arima zuenez, oso gogoko izaten zituen zelaia, mendiak, itsasoa eta abar, egin zituen ibilaldien berri ematean nabari delarik.

2. KARMELDAR DIJON-EN

21 urte zituela, 1901eko abuztuaren 2an sartu zen Dijongo moja karmeldarren komentuan. Komunitateko nagusiak honako hau idatzi zuen: “Jaunak arima berezi bat oparitu digu”. Komunitateko lagunak izango ziren espirituzko bizitza eta doktrina bat egininda batasun osoan bizi izan zen karmeldar gaztearen lekuko; bere mezua eguneroko bizitzan jan-edari eginda ageri zaigu. Elisabet-ek mezu hori hezur eta haragi egin zuen: hortik datorkio nabari zaion barne indarra mezu horri.

Nobizio-urtea barne probez betea izan zuen...; zoriontasunaren ezkutuko iturri bila zebilen. Eta ezkutuko hori bere barnean aurkitu zuen; egin-eginean ere zerua aurkitu zuen lurrean, gero-

zuen. Eta bere burua eskaini zion Jainkoari birjintasun botoa eginez. 1894ko uda zen.

Bere amak erlijio-bizitzarako joera hori alabaren bihotzetik al-
dendu nahi izan zuen. Hala eta guztiz ere, dagoeneko finkatuz
zihoan gaztea, giza osotasun orekatsua lortuz. Hamazortzi urte
egin orduko, gaindituak zituen bere tenperamentuak sortzen ziz-
kion arazo pertsonalak eta eskuratuta hainbateko oreka sendoa.
Intelektualki intuizioz beteriko neska gogoetatsua zen. Amak
onartu egin zuen, azkenik, karmeldar erlijiosoa izateko hartutako
erabakia, baina 21 urte bete ondoren egiteko baldintzarekin.

Ezagutzen dugu 19 urte zituela idatzi zuen egunerokoa: ber-
tan, besteak beste, bere barne bizitzaren bilakaera, otoitzezko
eta bakardadezko bizitza, arimak salbatzeko zituen gogo-kez-
kak, erlijio-bizitzari zegozkion proben gainditzea, Eukaristiari
zion maitasuna eta beste hainbat berri jasotzen ditu. Urte horie-
tan irakurri zuen bi urte lehenago hil zen Teresatxo santaren
“*Arima baten Historia*” liburu ospetsua.

Kontenplaziorako arima zuenez, oso gogoko izaten zituen
zelaia, mendiak, itsasoa eta abar, egin zituen ibilaldien berri
ematean nabari delarik.

2. KARMELDAR DIJON-EN

21 urte zituela, 1901eko abuztuaren 2an sartu zen Dijongo
moja karmeldarren komentuan. Komunitateko nagusiak hona-
ko hau idatzi zuen: “Jaunak arima berezi bat oparitu digu”. Ko-
munitateko lagunak izango ziren espirituzko bizitza eta doktri-
na bat egininda batasun osoan bizi izan zen karmeldar gaztea-
ren lekuko; bere mezua eguneroko bizitzan jan-edari eginda
ageri zaigu. Elisabet-ek mezu hori hezur eta haragi egin zuen:
hortik datorkio nabari zaion barne indarra mezu horri.

Nobizio-urtea barne probez betea izan zuen...; zoriontasuna-
ren ezkutuko iturri bila zebilen. Eta ezkutuko hori bere barnean
aurkitu zuen; egin-eginean ere zerua aurkitu zuen lurrean, gero-



ago heriotza baino urte bete lehena-
go eginiko gogo-jardunetan aitortu-
ko zuen bezala.

Dijon-eko moja karmeldarren
etxean abian jarritako bizitzaren ha-
sieratik argi zegoen nolakoak izango
ziren beraren bizitza eta izaera. Jolas
kutsuz mojen artean egindako galde-
ra-sorta batean, beraren zenbait
erantzun ageri zaizkigu. Esaterako,,
hurrengo hauek: -zein da zure santu-
tasun-helburua? (erantzuna: -"maita-
sunean bizi"); -nolako egoera nahi
zenuke heriotza-ordurako? (-"maita-
tuz hiltzea nahi nuke, eta maite du-
dan Haren besoetan arnasa ematea");
-zein da gorrotagarrien gertatzen zai-
gun akatsa? (-"norberekeria, agertzen
dituen adierazpen guztietan").

Fedearen ibilbidean aurrera egi-
nez, San Paulo irakurtzean aurki-
tzen ditu bere bizitzaren helburua
eta norabidea, hots, "aintzaren go-
respen" izango da; bere bizitza Ze-
ruan "aintzazko aintza" izango dela

konturatuz, ezinbestekotzat jotzen du bizitza horri hasiera lu-
rrean ematea. Horrela esango du "nik neure bokazioa aurkitu
dut. Jainkoaren barneko izaera nire ariman pozez eta atsegi-
nez bizitzean, aintzazko aintza izatea izango da. Horrela, bere
izen berria "laudem glorie" izango da. Jainkoaren borondate-
ari eta maitasunari oso-osoan eskainita aintzazko espirituan bi-
ziko da.

Barne bizitza horretan oinarrituz gauzatuko ditu, batetik bere
bertuteak (apaltasuna, karitatea, itxaropena, fedea...) eta, beste-

tik, ingurukoekin izango dituen harremanak, bere barnean eragile duen Jainkoaren ikuspegiz biziz; hain zuzen ere Hirutasun Santua bere barnean bizi izateak ematen dion ikuspegiz. Berau oso argi ikusirik, honako hau adieraziko du: “nire ardura bakarra bere baitan biltzea da”; hau da, Berarekin bakardadean biziko da, hori baita beti dirauen balioa den maitasunean bizitzea...

Barnean zorion-iturri duen Jainko horri buru-belarri eskaintzeko gogo sakonak zituela, gorputz eta arima ongi prestatu ondoren egin zuen erlijio-profesa Elisabet-ek 1903ko urtarrilaren 11n.

Jainkoarenganako barne-harreman hauek bultzaturik sortu zen heriotza baino bi urte lehenago (1904-XI-21) Hirutasun Santuari egin zion otoitz ospetsu hura ere; honela hasten da: “Ene Jainko, ahuspez gurtzen zaitudan Hirutasuna! Lagun egidazu neure burua ahazten, zugan tinko jarri nadin, zirkinik gabe eta bare, ene arima betiraunean ezkutaturik balego bezala. Ezerk ez dezala ene bakea artegatu, eta ezerk ez nazala aldendu zugandik, ene Aldaezin horrengandik, baina zure Misterioaren sakonengan beti sakonago sartu nadila”... Eta honela bukatu: “Zuok, ene Hirurok, nire Dena, nire Zoriona, hasterik eta amairik gabeko Bakardadea. ..., nire barruan estali zaitez, ni Zugan estali nadin, zure argitan zure handitasunen itsasoan Zu ikustera joan nadi arte”.

Atsekabeari aurre egiteko unean, beraren laguntza eskaini nahi zion adiskide bati honako hau ziotson Elisabet-ek: “Zure samin handi horretaz jabetzen naiz. Bai ezkutuko ulertezina dela heriotza! Hala ere, zein gauza erraza heriotza-unea fedean oinarrituta bizi izan den arimarentzat”. Ez ziren hitz hutsak, berberak bizi izan baitzuen handik laster gaixotasun eta heriotza hori testigantza ederra emanaz.

GAIXOTASUNA ETA HERIOTZA: “ ARGIRA, BIZIRA, MAITASUNERA”.

1905eko garizumak sentitu zituen gaixotasunaren lehen eztenkadak. Hogeita lau urte eta erdi zituen. Eta gaixotasun ho-

rrek eramango du heriotzara urtebete eta erdi gerroago. Egin-eginean ere, aldi labur hori oso sakona izango da, bera idazkiak, gutunak eta olerkiak espirituzko bizitzaren sakontasunaren lekuko izateaz gainera, bere barneko bizitzaren testigantza ere izango baitira.

Ohiturari jarraituz urte barrurako santu babesleak zozkatzeko egin zuten 1906ko urtarrilaren 1eko atsedenaldian San Jose tokatu zitzaion Elisabet-i eta hark honako hau esan omen zuen: "San Jose da heriotza onaren laguntzailea eta nire bila dator zeruko Aitarengana eramatera!"; mojek barre-algara egin zuten hori entzutean.

Hala ere, egia bihurtu zen. Bere barneko indarra agerian nabarmentzen zenez, mojek ez zuten uste bere osasuna ahulduta zegoenik, eta zaintzen zutenek ere ez zuten uste hain gaizki zegoenik.

Baina egunetik egunera nabarmenagoa zen bere ahulezia. Urdaileko ultzerak etengabeki ziharduen lanean. 1906ko garizuman argi agertu ziren bere gaixotasun larriaren sintomak. Erramu egunean (1906-IV-8) hain larri jarri zenez oliadura santua eman zioten. Apaizak honakoa galdetu zion: -gogo onez onartzen dituzu minak?, eta berak erantzun: -"Ene, bai horixe, zoriontsu naiz oinazeak jasanez!". Eta bere profesioan hartutako





gurutzea esku artean estutuz behin eta berriro errepikatzen zuen: "Ene, Maitea, Maitea, Maitea!".

Hala ere, onera egin zuen hainbatean. Beraren osasuna zela eta kezkatu-rik zebilen kalonje bati honako hau idatzi zion: "Badakit egia esan dieza-zudala bihotzeko entzule leiala izan zaitudan horri. Hemen, lurrean nire zerua egin duen Hirutasun Santuaren barnean bildurik, maite dudan Haren neurrigabeko edertasuna laster ikus-tera joateko ilusioak

pozez betetzen dit bihotza. Bai gogorra izango nukeela berriro lurrera itzuli beharra!".

Eta bere amari honakoa idazten zion: "Jakingo bazenu zein zoriontsu naizen nire eritegi txiki honetako bakardadean! Nirekin dut Jesus. Eta biok gau eta egun elkarriketa gozoan dihardugu. Egunetik egunera estimu handiagoan dut nire karmeldar bokazioa, erregu egiten diodalarik Jaunari Berari eskaini ninduen ama maitearen alde. Gaixorik naizenetik gehiago hurbildu naiz zerura".

1906ko abuztuaren hasieratan "*Zerua fedean*" deritzan eskuizkribu zoragarri bat idatzi zuen bere ahizpa Margaritarentzat. Eta hilabete berbereko bigarren hamabostaldian prioreari gero-


ko bizitzarako gertatzeko gogo-jardunak egitea eskatu zion, bertan izandako gogoretak idatzirik utzi zituelarik. Testu hauek, egia osoa Jainkoarengan lortzera, gurutzean hil zen Kristori oso-osorik bere burua eskaintzera bideratutako gogo sakonaren egarria dute iturburu. “Jainkoaren gehiegizko maitasunaren” aurrean adierazitako maitasun-deiadarra direla esan daiteke.

Interesgarria gertatzen da, gaixotasunaren proba eta saminen artean bere bizitzari zerion poztasuna ikustea.

Familiak egin zion azken bisitaldian, 1906ko urriaren 29an, agurtzean honako hau esan zion amari: “Amatxo, ahizpa atezainak oinazeak bukatu zaizkidala jakinarazten dizun unean, jar zaitez belauniko eta esan honako hau: “Ene, Jainkoa. Zuk eman zenidan, nik itzultzen dizut; goratua izan bedi zure Izen Santua”.



Azken egun horietan min jasanezinak zituen. 1906-X-31n berriro eman zioten Gaixoen Oliadura. Hil baino bi egun lehena-go pixka bat berreskuratu zituen indarrak moja ahizpei barruan



zuen zoriontasuna adierazteko. Hil aurreko egunean honako hau entzun zioten ahopean: “ ARGIRA, BIZIRA, MAITASUNERA NOA!” 1906ko azaroaren 9an hil zen.

Beraren heriotza zela eta, Karmeldarren etxeetan ohiko denez, zirkular bat bidali zuen etxeko nagusiak beste komentuetara hil berri zen karmeldar gaztearen berri emanez. Erantzunak hain ugariak izanik Germana amak “Elisabet hain ezaguna egin zuten *“Oroitzapenak”* argitara ematea erabaki zuen. *Oroitzapen* hauetan Elisabet-en idazkiak eta gutunak, bere amaren eta beste zenbait pertsonen informazioa eta abar hiltzen zituen. “Oroitzapenak” liburuak izugarritzko arrakasta izan zuen jatorriko frantsesean. 368 orrialdeko liburua 1909an argitaratu zen lehen aldiz, hasieran 1500 ale atera zirela. Hirugarren argitaraldi bat egin zen 1911n (eta bi hilabeteren barruan 800 ale saldu ziren). Hamaseigarrena (100.000 ale ingurukoa) 1956an egin zen. Hau da, 40 urteren barruan obra horren berrehun bat mila ale saldu ziren frantsesez; geroago agertu zen obra beste hainbat hizkuntzatan.

4. IDAZKIAK

A. Espirituzko lan laburrak.

Gure arreta, gaixorik zegoelarik bizitzako azken urtean idatzi zituen espirituzko lau idazkitan jarriko dugu:

1) “*Le Ciel dans la foi*”... “**Zerua fedean**” (1906ko abuztuaren lehen hamabostaldian)

Heriotza baino hiru hilabete lehenago idatzi zituen pentsamendu hauek koaderno batean. Elisabet-ek bazekien atean zuela heriotza. Hain handi izanik Jainkoa ikustera joateko zuen gogoa, fede haustezina agertzen zuen. Idazkia ama gazte bat zen Margarita bere ahizpari dedikatu zion ustekabea, Jainkoarekin bizitzera animatuz eta zerua lurrean bilatzen laguntzeko asmoz.

2) “*Dernière retraite*”... “**Azken gogo-jardunak**” (1906ko abuztuaren bigarren hamabostaldian).

Elisabet-ek bazekien bere bizitzako azken gogo-jardunak izango zirela. Ama prioreak, heriotza egun batetik bestera gerta zitekeela gogoan izanik, eta berari buruz zirkular bat idazteko asmoa zuelarik gogo-jardun horietako pentsamenduak idazteko eskatu zion. Eta Elisabet-ek “irribarrez” onartu.

Bere gogoetetan eta espirituzko bizipenetan jasotzen zituen “aurkikuntza onak” apuntatuz joan zen. Abuztuaren 16an hasi eta 31n bukatu zuen.

Prioreak ohartarazten du gogoeta hauek karmeldar gazteak gaixotasunean samin biziak pairatzen zituenean idatziak izan zirela. Orrialde hauetan datu autobiografikoak eta oinaze pertsonalaren presentzia ikus ditzakegu. Hortik dator Kristoren presentzia bizi-ardatz bilakatzea; oinazea Salbatzailearen heriotzarekin bat egiteko sinbolo modura ageri da. Ardatz egiten duen ideia bat nabari da: Jainkoarekin lurrean Zeruan bezala bat egitea, Kristorekin oso-osoan bat eginda izatea. Jainkozko bizi ugaria nabari du. Honako hau esaten du: “Dagoeneko nire arima zerua da non itxaroten dudan zeruko Jerusalem; beharrezkoa da, beraz, zeru honek ere Betierekoaren aintza, hain zuzen ere Betierekoaren aintza bakarrik kantatzea”.

Gogo-jardun hauek maitasun-irrintzi bat dirudite... hondorik gabeko sakonetik sortutako irrintzia”: Argiari, Egiari, Maitasunari dion maitasunezko irrintzia..

3) “*La grandeur de notre vocation*”... “**Gure bokazioaren handitasuna**” (1906ko irailean)

Gutun gisa idatzitako idazlan laburtxo hau 19 urteko Frantziska Sourdon Dijon-eko neska gazte bati idatzita dago. Elisabet-ek ongi ezagutzen zuen adiskide hori, eta zeukan bihotz zabaltasuna ere bai; eta hortaz jabetzen lagundu nahi zion, ideal gabeko neska gaztea baitzen eta Egiatzko bakarra ezagutzeko la-



guntza behar baitzuen. Idazlan horrek, era berean, badu aszetikak kutsua ere, Frantziskak ez zuelako oraindik nahikoa heldutasun.

4) "*Laisse-toi aimer*"... "**Utz ezazu maitatzen**" (1906ko urriko azken egunetan)

Idazki hau pertsonala eta barne-barnekoa da; Germana prioreari zuzendua. Heriotza aurreko azken asteetan idatzi zuen, nonbait. Paper hau 1934. urtean aurkitu zuten priorea hil zenean haren gelan. Elisabet-en heriotza-osteko egitekoa ageri da bertan, hau da, gainerakoei Maitasunarekin batasunean bizitzen laguntzea.

B- Gutunak.

Gutunak osotzen dute bere idazkien artean alderik handiena. 346 gutun heldu dira guregana. Horietarik 84, gaztarokoak, sekularra zen garaikoak dira eta gainerakoak karmeldar egin ostekoak.

Bere gaztaroko gutunetan hurrengo zer hauek nabarmentzen dira: a) zintzotasuna eta apaltasuna; b) neurririk gabeko alaitasuna bidaien deskripzioetan nahiz musikaldietako emanaldietan, mendi, itsaso eta abarrek sortutako zirrarak islatzen direlarik; c) adiskidetasunari dion begirunea, eta d) ingurukoei loturak sortzeko eta heretarrengandik aldentzeak sortutako samina onartzeko energia. Gutun guzti hauen barneko bestaldean egunetik egunera presenteago egiten den Jainko bizia ageri da.

Karmeldarren etxetik idatzitako gutunek nabardura berriak eta baliotsuak dituzte: Komentuko eguneroko bizitzaren isla dira, hainbatean: hots, komentuko gertaerak, batez espirituzkoak, esaterako, gogo-jardunei dagozkienak; oinazearen eta gaixotasunaren aurrean agertzen duen jarrera; eta, batez ere, Jainkoaren, Hirutasun Santuaren eta barruan gori-gori zuen suaren bizipenak.



gaixorik

C. Egunerokoa

18-19 urte zituela *Egunerokoa* idatzi zuen, bertan, besteak beste, bere gogoetak, esperientziak eta bizipena, barruko borroak eta poztasuna, Jainkoari zion maitasuna eta Kristoren lanean parte hartzeko gogoia, hau da, bere espirituzko ibilbidea jasoz. Bere bihotzak taupa-taupa bizi zituen edertasuna eta harmonia; bere sentiberatasunak dar-dar egiten zuen oinazearen aurrean; Jainko-egarria zuen barruan; sufrimendu handia sortzen zion une hartan bere bokazioa ezin bete izateak, inguruko-ei ezkutatu egiten zien arren. Idazki honetan Karmel etxera eramango zuen bide espirituala ageri zaigu. Era berean, bere garai-ko katekesia bidezko espiritualtasuna eta tankera ere nabari da.

D. Ezkutuko oharrak

Sekularra nahiz karmeldarra izanik idatzitako ezkutuko 17 oharrak oso pertsonalak dira. Ez dira inorentzat idatziak; beraz, beretzat bakarrik idatzi zituen. Nabarmentzekoa da Hirutasun

Santuari eginiko otoitz ospetsua; Karmel aldizkari honetako ale honetan argitaratzen dugu.

E. Olerkiak.

Idazki hauek ez zituen olerkitzat jotzen; gehienez ere, inoiz-ka espirituzko bizipen pertsonalik ageri bada ere, gizarte eta komentuko gertakari batzuen inguruan sortutako bertso, kopla eta halakoak aipatzen zituen. Komentuan kantatzeko idazten zituen, horrek beraien erritmoa nabarmentzen duelarik; komentuko gertakarietan, zirela jai liturgikoak, profesa-egiteak, urteurrenak eta abar, jai egiteko eginak izan ziren

124 olerki dira: 72 karmeldarren etxera sartu aurretik idatzia, eta gainerakoak Dijon-eko Karmeldarren etxean egindakoak. Espirituzko barne-giro batean irakurri behar dira. *Olerki* hauetan barnean bizi zuen espirituzko bizitza islatzen du *Egunorokoan eta Ezkutuko Oharretan* egiten duen bezala.

F. Eskola-lanak

Guztira 54 atal txiki edo ariketa estilistiko dira.

Aipamena merezi du eskola-lan hauetariko batek: hots, 1895ean Jura-ra egindako ibilaldia jasotzen duen koadernoak.

5. BIZI IZATEKO MEZUA

Orain arte bere bizitzari eta idazkiei buruz esandakoan argi nabarmentzen da eskaintzen digun mezua: bere bizia bera da mezu erakargarria; ez du bere barnean bizi den Hirutasun Santuaren misterioaren barruan bizi izandako mezua ez bestelakorik.

Elisabet, Jainkoa presente egiten duen igarle baten antzera ageri zaigu. Barne-barnetik guztiz lotua du Jainkoaren aintza, Jainkoaren presentziaren argia kristau-izaerak, hartutako bataioak, Kristorekin bat egina izateak: hori horrela, bere mezu nagus-

sia Eliza barruan maitasunaren misterioa bizi duen edozein kristauri eskainia dator.

Bere lan guztiak frantsesez argitaratu zituen Conrad de Meester jaunak, Jainkoaren igarle izate hori ulertzeko bide izan daitezkeen alderdi batzuk seinalatzen ditu:

Barnetasun osasuntsua eta Jainkoarenganako arreta biltzen dituen karisma.

Bere garaian harrigarri gertatzen da Hirutasun Santuarengantz agertzen duen hurbiltasun sakon eta gartsua.

Era berean, bultzada berri bat ematen dio kristau-bizitzaren gutun nagusia den Bibliara hurbiltzeari.

Nahiz eta oso-osoan erlijiosoa izan, adierazgarria da sekularraren espiritualtasuna bultzatze-orduan agertzen duen jarrera.

Elisabet-engan, Maitasunaren, Hirutasunaren bizipena sakonki bizitzeko barne indarra ageri da; bera ez da teologia edo mistikaren irakasle, jardunean dirauen graziaren lekuko baino.

Julen Urkiza – Patxi Uribarren